prioridades la recuperación de la lengua. «El pueblo había perdido el idioma y los pocos que lo hablaban, lo hacían en casa, no en la calle, no se interactuaba con nuestra lengua», reconoció la mandataria nasa.

## «Revolución desde la cuna»

Fue entonces cuando comenzó el intercambio formativo con Garabide. Se crearon pequeñas guarderías para niños de 3 a 6 años que eran educados en nasa yuwe. Empezaron con seis y hoy son 120 menores. También están trabajando en la alfabetización adulta. En su primera visita a Durango, la alcaldesa Leidy Paví reconocía haberla impresionado la metodología para enseñar en euskera y la organización a la hora de generar esos métodos y distribuir la enseñanza. «Se ha logrado la revolución de la lengua desde la cuna», explicaba.

Sin embargo, a lo largo de los 50 años que Euskadi lleva trabajando por su autonomía lingüística, existe una asignatura pendiente. Según Paví, no se ha dado la importancia que se merece a la transmisión del proceso histórico de recuperación de la lengua. «Nuestros abuelos nos han grabado a fuego toda la gente que ha muerto defendiendo nuestra cultura y nuestra lengua, pero me he dado cuenta que aquí los jóvenes desconocen cuál fue el proceso de recuperación del euskera, cómo fueron sus inicios y la lucha de sus padres y abuelos, y eso es muy importante», explicó la dirigente.

---

TEMAS **Durango**

# **ALDIZKARIAK**

---

Iritzia (<http://www.argia.eus/iritzia>)

## Euskararen posizioa

MIKEL IRIZAR (<http://www.argia.eus/argia-astekaria/egileak/mikel-irizar>)  
2017ko otsailaren 26a

Euskal soziolinguistikaren antologiarako geratu da Kike Amonarrizen kale inuesta euskararen tamainaz: gehienek oso txiki ikusten zutena, munduko hizkuntzen goiko tropelean dabil, zaitasun artean duin.

Beste horrenbeste esan liteke 2016ko Donostiako hizkuntza aniztasunaren foroak azaleratu duenaz: hizkuntza gutxituen artean euskara da hedatzen –hau da, hiztunak eta espazioak irabazten– ari den bakarretakoa.

Beldur handiegia izan diogu euskararen egoeraren alde baikorrak azpimarratzeari, horrekin hizkuntzaren aldeko afana galtzeko –edo, zenbaitentzat okerrago, inori dominaren bat oparitzeko– arriskua balego bezala.

Baina egia da; munduko hizkuntza gutxituen artean euskara erreferentzia bat da, batez ere EAEn izan duen biziberritzea dela eta. Posizio honek bi emozio eragin beharko lizkiguke: alde batetik, harrotasuna, lortutakoa ez bata inoren opari izan, gizarte ekimenaren eta erakundeen ahalmenaren ondorio baizik, lan on askoren fruitu ederra; bigarren emozioa, ardura behar genuke, euskararen herri osoari begira, baita mundu zabalarie ere. Kooperazio linguistikoa izenez identifikatzeten hasi gara beste hainbat hizkuntza gutxituekin izan dezakegun harremana: gure eskamentua hiei eskaini eta trukean hain hizkuntzareniko pasioaz gu apur bat kutsatu.

Bada beste liga bat ere, asko interesatzen zaiguna: munduko hizkuntza txikiena. Hizkuntza gutxituez gain badira beste batzuk, estatus politiko sendoagoa dutena, baina hiztun kopuru mugatua. Europan bertan hainbat dira: nederlandera edo daniera bezala, baltikoak, balkaniokoak edo nordikoak. Hizkuntza hauek hiztun komunitate txikia dute, eta igurtzian daude hizkuntza hegemonikoekin, nagusiki ingelesa eta alemana.

Hizkuntza txikiekin eskumenetan dugu aldea, haien estatua baitute. Hala ere, haien hainbat estrategia eta eskamentu balekoak izan dakizkiguke, gurera egokituta. Esaterako, nola jokatzen du ikus-entzunezkoen sektoreak Danimarkan, gazte guztiek ingelesa primeran jakin arren kontsumoa nagusiki danieraz egin dezaten? Zerbait kopiati dezakegu?

Asko komeni zaigu begirada gure zilborretik altxatzea eta inguru zabalarie ere begiratzea, euskararen gainekeo analisien kontrastea egiteko eta besteen eskamentuak ere baliatzeko. Euskararen posizioa ez da txarrena aukerak aprobetxatzeko; bestalde, guk irabazitako hiztun edo esparru bakoitza garaipen bat da munduko hizkuntza aniztasunaren ikuspegitik. Animo!

**JOAN IRUZKINETARA (<HTTP://WWW.ARGIA.EUS/ARGIA-ASTEKARIA/2543/EUSKARAREN-POSIZIOA#IRUZKI>)**

(   ([mailto:?subject=\[ARGIA\] Euskararen posizioa&body=http://www.argia.eus/argia-astekaria/2543/euskararen-posizioa](mailto:?subject=[ARGIA] Euskararen posizioa&body=http://www.argia.eus/argia-astekaria/2543/euskararen-posizioa))  (<http://www.argia.eus/argia-astekaria/2543/euskararen-posizioa/inprimatu>)  ([http://www.argia.eus/astekaria/docs/2543/pdf/2543\\_Argia-19-19.pdf](http://www.argia.eus/astekaria/docs/2543/pdf/2543_Argia-19-19.pdf))

Kanal hauetan artxibatua: **Iritzia** (<http://www.argia.eus/iritzia>) | **Euskara** (<http://www.argia.eus/euskara>)



(<http://www.argia.eus/eginargiakoa>)

Cast Eusk

# TOLOSA ETA DONOSTIA (06/28-30): TOPAKETA "HIZKUNTZA MINORIZATUAK ETA IRRATI LIBREAK"

REDACCIÓN PUEBLOS, 2017/06/26 | LEAVE A COMMENT

Pueblos – Bakea eta Duintasuna Elkarteak, Pueblos, Garabide, Antxeta Irratiak eta Arrosa Sareak, "Hizkuntza minorizatuak eta irratibreak" TOPAKETA antolatu dugu ekainaren 28tik 30era. Horretarako, hurrengo gonbidatuak izango ditugu gurekin, Kerne Irratia (Bretainia), Fimoc (Okzitania), Cuac Irratia (A coruña), Na life Irratia (Dublin) eta Arrosa Sarea (EHko Irrati Libreak).



Topaketan zehar bi ekintza publiko burutuko dira Gipuzkoan.

Ekainaren 28an, Tolosako Kultur Etxean, 18:00tan, "Gaelikoa eta Euskera uhinetan" solasaldia izango da eta Muiris Ó Finnachta (Na Life Irratiko kidea) eta Arrate Illaro (Euskaltzaleen Topagunea) parte-hartuko dute.

Eta ekainaren 30an, Donostiko Koldo Mitxelena Kulturgunean, 09:30tik 14:00tara, "Irrati libreak hizkuntza minorizatuak

biziberritzeko tresna gisa" jardunaldia, zeinetan hurrengo gonbidatuak parte-hartuko duten: Arantza Gutierrez Paz (EHUko irakaslea), Ander Bolibar eta Andoni Barreña (Garabide); eta Bretaña, Okzitania eta Galiziako irratibreako ordezkariak.

Topaketa honekin Europako hizkuntza minorizatuak biziberritzeko helburuarekin diharduten irratibreen arteko elkarlana sustatu

nahi dugu, Europar Batasunean Komunikazioaren demokratizaziorako sortutako prozesuen arteko trukaketa eta ikasketarako espazio bat sortzeko asmoarekin.

### **Ekainak 30. 09:30 – 14:00 Koldo Mitxelenan (Donosti).**

JARDUNALDIA: "Herri komunikabideak hizkuntza minorizatuak biziberritzeko tresna gisa".

#### **09:30 – 10:00 Aurkezpena**

- Fernando San Martin, GFA Lankidetza zuzendaria.
- Arrosa Sarea.
- Eneko Calle, Bakea eta Duintasuna Elkartea.
- Aitor Errazkin, AMARCejo ordezkaria.

#### **10:00 – 11:30 Irratigintza eta hizkuntza minorizatua EHAn, Europan eta Latinoamerikan**

- Arantza Gutierrez Paz, EHUko Ikus-entzunezko Komunikazio eta Publizitate Saileko irakaslea.
- Andoni Barreña / Jon Sarasua, Garabide Elkartea.

*Moderazioa: Aitziber Zapirain, Antxeta Irratia.*

#### **11:30 – 12:00 Kafea**

#### **12:00 – 14:00 Tokiko irratietatik ikasten**

- Isabel Lema, CUAC Irratia (Galizia).
- Fanny Lartigot / Lauriane Tresserre, FIMOC (Okzitania).
- Lou Millour / Morgan, Radio Kerne (Bretaña).
- Aitor Errazkin, Antxeta Irratia (EHA).

*Moderazioa: Eneko Calle, Bakea eta Duintasuna Elkartea.*

**Sarrera:** Dohainik (eserlekuak amaitu arte).

**Hizkuntza:** Euskera (aldberekoko itzulpena egongo da ingelesa eta frantsesetik).



Debagoieneko Atzegiko hainbat kide Aretxabaletan. IMANOL BELOKI

## 'AtzegiXperience' kanpaina aurkeztu dute

Adin askotariko pertsonak boluntario izatera eta "esperientzia ahaztezinak bizitzera" animatu nahi ditu Atzegik sentsibilizazio kanpaina berriarekin. Bailaran ere, herritarrok "kanpainako lau esperientzieta partea hartzen" gonbidatu dituzte

### Josu Bilbao DEBAGOIENA

Adimen urritasuna duten pertsonen aldeko Gipuzkoako elkartea (Atzegi), Gipuzkoako Foru Aldundiarekin elkarlanean, urteko sentsibilizazio kanpaina berria aurkeztu du asteon. *AtzegiXperience* lelopean, batez ere, boluntarioei bideratuta egongo da kanpaina.

Izan ere, "adimen urritasuna duten pertsonek, deialdi dibertigarri baten bidez, boluntarioen esperientziak, modan dauden esperientzia kaxekin alderatz, bizipen ahaztezinak izateko gongbita" egin du elkartea. Bi- zipoza, Escapadas, Bienestar edo Bidelagun, izenen arabera multzokatu dira AtzegiXperience kaxak eta, horien bitartez, Atzegik eskaintzen dituen boluntario aukerak azalduko dira; puntualki kolaboratzea, aldizka, zaletasunen bat partekatzea, ekimenetan parte hartzea, oporetara joatea edo, besterik gabe, zerbaite hartzera ateratzea. Hala, kolore guztiak esperientziak

daudela aditzera eman nahi du kanpainak: "Zarena zarela badagoela zuretzat egokia den esperientzia".

Aldi berean, "boluntarioen lana balioan jarri" nahi dute, eta adimen urritasuna duten pertsonen denbora partekatzen duten pertsonei "eskerrak eman" gura dizkiete. Izan ere, "doan, euren zaletasunak partekatu eta hainbat esparrutan laguntzen duten pertsona asko dago", Patricia Ayo kanpainako koordinatzaileak azaldu duenez.

Josean Idoeta Atzegiko presidenteak, bestalde, adimen urritasuna duten pertsonen bizitzan boluntarioek duten garrantzia azpimarratu du: "Hauei esker, adimen urritasuna

**ATZEGIKO  
BOLUNTARIOEN LANA  
BALIOAN JARTZEA DA  
KANPAINAREN  
HELBURUETAKO BAT**

na duten pertsonek euren aisiadiaz gehiago gozatu, gizarteak aktiboki parte hartu edo lagun hurkoa zabaltzeko aukera dute eta horrek hobetu egiten du euren gizarteratzea".

Horrez gain, Josean Idoeta adierazi du boluntarioek ere balorazio oso positiboa egin ohi dutela. "Oso ondo pasatzen dute eta bueltan asko jasotzen dute la adierazten digute".

### Debagoiendarrak animatzea

Atzo egin zuten bailara mailan *AtzegiXperience* sentsibilizazio kanpainen eta promoziorako kartelen aurkezpena, Aretxabaletan, eta Debagoieneko Atzegiko arduradun Jokin Antxiak herritarrok parte hartzen gonbidatu zituen: "*AtzegiXperience* kanpaina berrian parte hartzea animatu nahi dugu jendea. Esperientzia nola bizi aukeratzeko orduan lau aukera daude, hain zuen ere, eta esperientzia horiek aberasgarriak izango dira, zalantzak gabe".

## Hainbat komunitatetako hamabi kidek ikastaroa jasoko dute

Garabidek eskainitako hizkuntza biziberritzeko gidaritzari buruzko ikastaldi trinko bat izango da

### J.B. ARETXABAleta

Astelehenaz geroztik, eta urriaren 30era arte, abian da Aretxabaletan Garabide elkarteak lehen aldiz antolatu duen hizkuntza biziberritzeko gidaritzari buruzko ikastaldi trinkoa. Martitzean, Unai Elkoro alkateak ondoetorria egin zien ikastaldiko parte-hartzaileei, eta ikastaroaren helburuak azaldu zituen, besteak beste, Jon Sarasua Gabideko kideak.

Zortzi hizkuntza gutxiagotutako hamabi pertsona ari dira parte hartzen ikastaldian, denak

ere agintari profilekoak. Ikastaroan, kitxua (Peru eta Ekuator), nasa (Kolonbia), kaqchikel (Guatemala), nahuatl (Mexiko), Yukatango maia (Mexiko), amazigh (Maroko) eta maputxe (Txile) hizkuntza komunitateetako kideek parte hartuko dute.

Urriaren 30era arte iraungo du ikastaldiak, eta parte hartzaileek 140 ordu inguruko formazioa jasoko dute, euskararen inguruaren egin den lanketa ezagutuaz hizkuntzak biziberritzeko estrategietan trebatzeko helburuarekin.



Komunitateetako hamabi kideak Garabideko arduradunekin. MIRARI ALTUBE



MAITE TXINTXURRETA

## Nagusien eskubideen defentsan

Pertsona nagusien bizi baldintza "gero eta kaskarragoen" eta pentsioen gaineko "ardura" azaldu dute, besteak beste, ibarreko hainbat herrian, Pentsiodunen eta Nagusien Nazioarteko Egunaren bueltan. Argazkian, Bergarako San Martin plazan astelehenean egin zuten elkarretaratzean bildutako herritarrok ageri dira.

# GOIBERRI

Menua ▾

## ZUEK EUSKARAZ, NIK ZERGATIK EZ?

20 urria, 2017 Iritzia, Itzainak 480

JOXE  
BEGIRISTAIN



Oso denbora gutxiko tartean bi ekitaldi erabat desberdin bizi izan ditut. Bietan, ordea, agerian utzi didate euskara biziberritzeko

ahaleginak miresmena eragiten duela, jende are eta desberdinagoren artean.

Lehena, CAFen mendeurrenaren baitan, Beasaingo lantegian irailaren 23an eta 24an egindako Ate Irekiak jardunaldietan gertatu zitzaidan. Jakina da CAFen urteak daramatzagula trenaren fabrikazio-prozesu osoan euskarari berez dagokion lekua emateko lanean. Ate Irekiak jardunaldietan, CAFen 100 urte hauetako historia, bilakaera eta trengintzaren hainbat eta hainbat atalen berri eman zen. Panelez irakurgai zen informazioa ele bietan zegoen, aurrena euskarazko testuaz, enpresako Hizkuntza Politika Orokorrak jasotzen duena betez. Eta ibilbidean zehar kokatutako informazio-pantaletako ahozko azalpenak, euskaraz bakarrik entzun ahal izan ziren. Azalpen horiek gaztelaniaz jarraitu nahi zituenak, pantailan aldi berean idatzita agertzen zen testua irakurri behar zuen.

Ia 7.000 lagun pasatu ziren asteburu horretan bisita gidatuan. Eta asko dira zorionak eman dizkigutenak, euskararen presentzia, handia irudituta, harriduraz. Guk harro jaso ditugu esker oneko hitz horiek, noski, baina antzeman dugu, fabrika zulotik harago ez dakigula saltzen, lan munduan ere euskaraz bizi daitekeela.

Goierriko oporozoen arteko Euskara Batzordea dugun Inbidera

<http://goiberri.eus/2017/10/20/zuek-euskaraz-nik-zergatik-ez/>

GoiETRIKO ENPRESEREN arteko EUSKALDA DAIZUNDEA uzuguri inigunea  
aipatu behar izan diegu adibidetzat, dozena bat enpresa behinik  
behin bagarela gogoraraziz, lanean euskaraz aritzeko bidea  
gauzatzen.

Hasieran aipatzen nuen ekitaldietako bigarrena, urriaren 11n  
Beasainen izandako solasaldia da. Garabide elkartek urteak  
daramatza hizkuntza gutxituak dituzten herri indigenekin  
esperientzia-trukean. Oraintxe bertan munduko hainbat  
bazterretatik etorritako indigenen ordezkari batzuekin hizkuntza  
biziberritzeko gidaritzari buruzko ikastaldi trinkoan dira bete-  
betean. Solasaldi irekian, indigena horiek beraien hizkuntzak  
biziberritzeko zertan ari diren agertu ziguten. Garabideko  
ordezkaria den Jon Sarasuarekin, Marokoko Milouda El Hankari,  
amazig hizkuntzaz, Mexikoko Leonardo Duran, nahuatlari buruz,  
eta, Txileko Paula Onesima, maputxeari buruz, aritu zitzaizkigun.  
Hiru indigenak bat etorri ziren euskararen berreskuratze-prozesua  
mirestean.

Baina kontuz! Bai CAFera bisitan joandako euskaltzaleak eta baita  
indigena horiek ere, oso jakitun dira euskarak 40-50 urte hauetan  
egin duen bideak, berez, ez duela etorkizunerako aurrerabide bera  
bermatzen. Jon Sarasuak, euskara-Arantzazu garaiei  
erreferentzia eginez, zera esan zuen: Arantzazutik Urbiara igota,  
bertan lainopean geldi ez ote gauden, Aizkorirako bidean.  
Funtsean, hizkuntza bat ez delako hitzen corpus soila. Hizkuntza,  
herri baten identitatearen muina da. Bai indigena horientzat eta  
baita guretzat ere. Euskal nortasunaren oinarria euskal kultura eta  
euska dira.

«Guk euskaraz, zuk zergatik ez?» zioen Gabriel Areistik, gerora  
Urkoren bidez ia-ia euskaltzaleon ereserki izateraino heldu zen  
abestiak geureganatu zituen hitzez. Nago, inor euskarara  
gonbidatzearen aldiak aspaldi galdu zuela zentzua, inoiz izan  
bazuen. Jendea euskarara etorriko bada, euskararen beharra  
nozitu beharko du norberak bere baitan. Euskarak hegemonia  
duen jendartean, euskaraz hitz egiteko ohiturarik ez duenak eta  
euskaraz ez dakienak, «zuek euskaraz, nik zergatik ez?»  
hausnartu beste erremediorik ez du.



Kontakiko parte-hartzaileak, irudia

## Euskara hizkuntza gutxituendako ispilu

Hizkuntza biziberritzeko gidaritzari buruzko ikastaldi trinkoa egin dute urrian. Garabidek antolatuta, eta zortzi hizkuntza gubitutako hainbat ordezkariak hartu dute parte ikastaldian. Taldearekin "bereziki gustura" egon dira antolatzaleak.

Miren Arregi ARRASATE

Datorren astelenean bukatuko da irriean sehar Garabidek antolatuta egin den *"Hizkuntza biziberritzeko gidaritzari buruzko ikastaldi trinkoa"*, eta bai antolatzaleak, baita parte-hartzaileak ere "oso poñik" agertu dira hilabeteko ikastaldiak eman duenarekin.

Garabideen lan-ildotako bat da formakuntza, eta hori lokatzetan da zortzi hizkuntza gutxitutako hamabi parte-hartzailek egin duten ikastaldia, "estrategia orokorreran sentituta eta gidaritzeta profili dute eragileei nizendus". "Mugimendu sozialtako gidarisk dira hotsak eta egintziarik bester batzuk", dio hizkuntzalako gobernuak kantoi era kundeko kide Jon Sarasua. Helburua da estrategia orokorreran gida eta eta duela 50 urte bemen gertatu zena -ikastolen eta euskaltegen sorerra, euskarra batusaren prosesua- euren hizkuntza komunitateetarako inspirazio iturri izatea.

Zortzi hizkuntza komunitateak

ikastaldian parte harizten ardiren zortzi hizkuntza komunitateetako zapta Amerikakoak dira eta bat Afrikakoak. Hain zuzen ere, ordezkaturia daude Boliviako simarrik. Mexikoko nabanti herriak, Txileko eta Argentinako maputzeak, Yukatanango mais hizkuntza komunitatea, Ekuadorko kitxuak, Guatermalaiko kaqchikelak eta Afrikako amazigh komunitatea.

Esperimentziak ezagotuz

ikastaldia egin zait bat teorikoa baino ere, baina tokian tokiko hizkuntzen oinarritutako bigarren bat. Hala, euskarazko hedabideak -Golea eta Berris-, begooledeko eta iparraldeko ikastoiak eta

**ESTRATEGIA  
OROKORRETAN  
ZENTRATU DA  
GARABIDEREN  
IKASTALDI TRINKOA**

Euskaltzaindia bisitata ditutze tarte honetan. "Miragarrirau dituzten xaitz nola gizarte zibilaz mobilizatu den euskararen alde. Herri baten borroka da suskaurren aldekoas, politika alde batera utxita", dio Paula Osesima Hozenmilla Herrerasik. Txileko maputzeak. "Hezkuntzan lortu dena ikaragarria da, lan eginez eta umiltasunetik lortu dena. Horin ahsarmendu zuke, giztien gainetik, umiltasuna", gaineratua du.

Benjamin Coelar Boliviako guaraní hizkuntza komunitateko Alto Izoiko herziketa arduraduna da. "Hemengo esperientzia oso aberatsgarria da guretxat. Ikuudi dugu hizkuntza biziberritzera edo soili hizkuntzen lana, erakundeen, saugimendu sozialen, eta barren-eikarrena bultzik. Laguntza behar dugu, prozesu osorako. Desok batu behar dugu, batera lan egin", dio. Herziketa arduradun den heinean, azaldu du hizkuntza unibertsitaterra erosiko lanean dihardutela.

## "Prekarietatearen aurka borrokan" jarraituko du LABek

Horiex nabarmendu dute Arrasaten egin duten eskualdeko delegatu batzarrean, martitzenean

M.A ARRASATE

LAB sindikatuak eskualdeko delegatu batzarrean egin du Arrasaten, martitzenean. Bileraren hainbat gai jorratu dituzte; bestea bestea. LAB sindikatuaren IX. kongresuan hartutako erabakien laburpena egin dute eta azaldu dute prekarietatearen surkako borrokan jarraituko duteela.

LABen eskuadako delegatu batzarrean landutako gai azpimarragarrirenetako bat IX. kongresuan hartutako hauxe izan da: esasituz hartztu dute prekarietatea. Eta, horrenbestez, prekarietatearen kontrako borroka sustatu nahi dute eskuadile gaztian. Horretarako, bi urte behin gehiago daramante birpensatze prozesuan, sindikalgitza birpensatzen eta ergonkoritz prozesuan jordan datela azaldu dute; gaineratua dute kongresua bilakaera horren helmuga izan dela. Hau azaldu du Debarroko LAB sindikatuko arduradun Jon Kirru Iparragirrek: "Guk, batez ere, prekarietatearen borroka nahi dugu enpresetan, horietan plangintzak egin nahi dituga, eta, horretarako, delegatu erre-

mintzak eskaini nahi dizkiengu. Hain zuzen, hori betetzera dator, edibidez azaroaren 15ean Arrasatetik eta azaroaren 17an Eibartik pasako den prekarietatearen surkako karabana ibilatua".

Arrasaten, azaroaren 15ean (eguztina), goizean delegatu formakundia eskainiko die, prekarietatearen surkako gida surkeztuta, eta gero, prekarietatean dauden sektore feminizatuak agerian utzi nahi dituzte, prekarietateak gehienetan emakumeen aurpegia duela salatuta. Beste kontu hau ere salatu nahi dute: "Prekarietaten kontrako borroka hau baliatu nahi dugu salatzeko eta aldarrikatzeko euskar ilangieriarik bera beharrizanetara egokitutako lan legedi bat nahi dusea, eta aldarrikapen hori ere kurtso honstan mahalaren gainean egongo da", adierazi du Iparragirrek.

Parisen joateko deia

Bileraren ostean, elkarretaratzea ere egin dute abenduaren San Parisen egindo den preso eta ihesilarien aldeko martxara joateko herritarrei dei eginet.

## Debagoleneko Erie Eguna egingo da bilar, Oñatin

Debagoleneko Jardunaldi Gastronomikoaren programaren barruan, beste ekimen batzuk guztiek aukera egongo da bilar. Oñatin. Hain zuzen ere, erlea eta eztia protagonista direlarik egingo da Debagoleneko Erie Eguna. Goizean zehar, Poruen plazan, erlearen inguruko azoka berezia egongo da. Bertan, bestea bestea, eztiz okozleak egongo dira, baita kosmetikako produktuak egiten dituztenak ere. Eriearen munduan deritzon era-kusketa egongo da ikusgai eta 11:30ean, askotariko egiten dasitatea egingo da. 12:30ean, bestetik, kandelak nola egiten diren ikasteko aukera egongo da, talde batzen hitzarte.

## Murrizketen kontra mobilizatuko dira ELA, LAB eta Stellas

Bilar, EAeko hira kihartuetan ELA, LAB eta Stellas sindikatuek deitua egingo diren manifestazioetan parte hartzeko ikasleak egin die Euskal Herriko Ikaskleen Gurasoen Elkartea (EHIGE) Euskal Eskola Publikoko familiak -Donostian 17:00etan Alderdi Edertik, Gasteizsen 17:00etan Andre Maria Zuriaren plazatik eta Bilbon 17:00etan Kale Nagusitik-. Detaildien helburua da "ikastetxe publikoetako ikaskleen lan-baldintzek izan dituzten murrizketak salatzera; gelakoratioak jaistea, ordezkapenak lehen egunetik egitea eta egnorkortasuna". Gainera, "moiz balio osoago, zentralitatea aldarrakatu nahi dute", diote.

## APOYO A LAS LENGUAS MINORIZADAS



El Ayuntamiento de Beasain destina el 1% de su presupuesto a ayudar a países en vías de desarrollo. Gracias al convenio de colaboración suscrito con Garabide, a partir de ahora, una cuarta parte de ese presupuesto irá destinado a la promoción de las lenguas minorizadas.

Durante los próximos 5 años el Ayuntamiento colaborará con Garabide en el proyecto para revitalizar las lenguas minorizadas con el objeto de que las comunidades con lenguas en peligro de desaparecer puedan preservar su lengua e identidad.

El proyecto de Garabide, que parte de la experiencia del euskera y se basa en la cooperación lingüística, tiene como objetivo compartir esa experiencia de recuperación del euskera con comunidades lingüísticas minorizadas de pueblos indígenas.

A ese respecto, y dentro del proyecto de revitalización de las lenguas, una docena de líderes indígenas de México, Colombia o Perú visitaron Beasain durante varios días. En México, por ejemplo, se hablan más de 140 lenguas, en Colombia alrededor de 70 y en Perú unas 60.

Muchas de ellas están en grave peligro de desaparecer porque son lenguas sin estandarizar, sin reconocimiento oficial, sin prestigio social y sin presencia en el sistema educativo. Por ello, y para que los líderes indígenas pudieran conocer de primera mano el modo en que se está revitalizando e impulsando el euskera, recibieron varios cursos intensivos en el Euskaltegi municipal.

Tras la visita realizada a Beasain y a otros lugares de Euskal Herria, los líderes indígenas volverán a sus comunidades cargados de ideas y proyectos para seguir trabajando en la revitalización de sus lenguas.

## GARABIDE ELKARTEA

Beasaingo Udalak bost urterako lankidetza hitzarmena sinatuko du datorren urtean Garabide elkartarekin herri indigenetako hizkuntzen biziberritzea sustatzeko. Hitzarmen honen helburua da garapen bidean dauden herrialdeei eskaintako laguntzaren baruan kooperazio linguistiko sustatzea herrialdeen nortasunaren alde eginez. Horretarako, Udalak, garapen bidean dauden herrialdeei bideratzen dien aurrekontuaren %1etik laurden bat zuzenduko du Garabide elkartarekin sinatuko duen hitzarmenera

## ELKARRIZKETA JON SARASUARI

**2005. urtetik darama Garabidek hegoaldeko hizkuntza komunitate gutxituetako eragileekin lankidetzan, nola gauzatzen duzue esperientzien elkartrukea eta zertan oinarritzen da aipatu lankidetza?**

Garabidek jakintza eta esperientziaren arteko fluxuan oinarritzen du lankidetza, hau da, ikasi eta irakatsi terminoen inguruan ardatzen dugu kooperazioa, ez hainbeste proiektuak finantzatzean.

Herri bezala, azken 50 urtetan egin dugun prozesu nagusienetarikoa euskararen biziberritze prozesua izan da eta horixe partekatzen dugu tankerako bideak egin nahi dituzten herriekin. Egun, gainera, eskaria handia da munduan zehar desagertzeko zorian dauden hizkuntza pila daudelako eta ez dakite horiek nola biziberritu. Beraz, kooperazio estilo honek behar horri erantzuten dio, munduko problematika horri, hizkuntzen eta kulturen problematika horri eta modu zabalago batean baita herrien garapen problematikari ere.

---

**“Garabide propone un modelo de cooperación basado en el intercambio de experiencias, en aprender y enseñar, y no en financiar proyectos. Nuestro objetivo es compartir y mostrar nuestra experiencia con el euskera a las comunidades en vías de desarrollo que quieren revitalizar sus lenguas y no saben cómo hacerlo”**

---

**Garrantzitsua al da proiektuak currera eramateko erakundeen eta instituzioen, Beasaingo Udalak, babes eta lagunza izatea?**

Jakina. Guk udal eta instituzio ezberdinei gogoeta politiko bat planteatu diegu: zein izan behar duen 3. mundurako garapen politikak. Baliabideak beti dira



Buruak eta bihotzak beteta agurtu ziren bisitariak

## Garabideko Lehendakarioordea

mugatuak, horregatik lankidetza ondoen egin dezakegun arloetara bideratzea da gure apustua eta Euskal Herriak zerbaite baldin badauka munduarekin partekatzeko euskararen eta kulturaren berreskurapena da. Zentzu horretan, Beasaingo Udalak oso jarrera irekia izan du eta apustu berritzalea egin du kooperazio politika egiterakoan. Guretzako udal batek horrelako apustua egitea oso garrantzitsua da.

*“Cada año ofrecemos un programa de formación a los líderes indígenas que nos visitan. Este año, gracias al convenio suscrito con el Ayuntamiento, han recibido formación sobre la alfabetización de personas adultas en el Euskaltegi y sobre el trabajo de un técnico de euskara y la política lingüística de un Ayuntamiento como el de Beasain. Ha sido una experiencia muy enriquecedora y novedosa”*

**Hitzarmenaren baitan bi ikastaro trinko eskaini dizkie Euskaltegiak bisitan eterri diren atzerriko ordezkariei. Zer ikasteko aukera izan dute? Nolako esperientzia izan da haientzat?**

Urtero formazio programak eskaintzen dizkiegu herrialde ezberdinatik datozen koordinatzaile edota hizkuntza bultzatzailee Euskal Herrian euskara ikasteko zein estrategia erabili diren ikus eta ikas dezaten.

Marko horretan, Beasaingo Udalarekin sinatuko dugun hitzarmenari esker, Beasaingo Udal Euskaltegian helduak euskalduntzeko prozesua zein izan den eta zein den azaldu zitzaien eta egin, gramatika ikastetik haratago, hizkuntzak ikasteko modu eraginkorragoak eta dinamikoak daudela ikusi ahal izan zuten. Bestalde, udal barruko hizkuntza politika nola

bideratzen eta antolatzen den eta euskara teknikari batek Udalean zein lan egiten duen ere ezagutzeko aukera izan zuten.

Ordezkarentzat oso harriarri eta berritzalea izan zen jasotako formazioa eta oso gustura aritu ziren.

*“La apuesta realizada por el Ayuntamiento a favor de una nueva política de cooperación es muy importante para nosotros y también lo es sensibilizar a la población sobre la problemática que hay a nivel mundial con las lenguas minoritarias; porque el nuestro no es un problema aislado, muchas comunidades están haciendo un gran esfuerzo por revitalizar y preservar sus lenguas. Y por nuestra trayectoria tenemos mucho que enseñar, pero también mucho que aprender porque en cierto modo hemos perdido ese espíritu que ellos aún conservan”*

**Amaitzeko, Garabideren beste helburuetako bat ere bada euskal gizartea sensibilizatzea eta helburu horrekin hitzaldia ere eskaini zenuten Igartza Jauregian.**

Sentsibilizazioa osotasun bat da, eta azkenean, gure problema ez da gurea bakarrik, gu mundu mailako korapilo batean gaude. Horregatik, Beasaingo gizartea herri indigenen hizkuntza problematikarekin eta egiten ari diren ahaleginarekin bustitzea garrantzitsua iruditzen zaigu. Guk badugu, gure ibilbideagatik, haiei zer erakutsia, baina guk ere badugu haiengandik zer ikasia, neurri batean guk galdu dugun espíritu hori daukatelako, aurrera egiteko, hizkuntzaren ametsa sortzeko, kulturari eusteko eta ohiturei eusteko grina bizirik dutelako.

## Paolina Vercoutere, Imbabura probintziako gobernadorea

# «Ez diogu kolonizatu izateari utziko hezkuntza sistema irauli artean»

Joan den ekainaren 17an, Ekuadorreko Imbaburako gobernadore izendatu zuten. Eskualdean influentzia handiena duten zappi emakumeen artean ageri da. Herrialdean inoiz izan den gobernadore indigenarik lehenena. Paolina Vercoutere Quinche, kitxua.



Miel A. Elustondo

ARGAZKIAK: ZALDIERO

### Kitxua duzu hizkuntza indigena.

Gogoan dut amamak, gure hizkuntzari buruz ari eta yangaximi esaten zuela. *Yanga*, "ezer ez" da. *Ximi*, "hizkuntza" edo "ahoa". Alegia, "ezerezaren hizkuntza" genuen *yangaximi*. Gure amak, berriz, kontra egiten zion: "Ez ezazula horrelakorik esan, ez da *yangaximi, rungaximi* baizik!". Alegia, *rungaximi*, "gizakiaren hizkuntza". Horrexek markatu du gure galbidea, izan dugun galbidea, oraindik ere irauten duena. Biziberritzeko prozesuari ekitekotan, nahitaezkoak ditugu geure kulturarekiko harrotasuna eta geure izateari eta hizkuntzari lotutako atxikimendua. Gure arazorik handiena, berriz, gaur egun, harrotasuna eta atxikimendua berreskuratzeara dugu. 2008az gero, Ekuadorreko herri indigenen eskubideak konstituzioan jasota daude. Bertako herri eta nazioek hizkuntza beren hizkuntzan jasotzeko eskubidea dute. Konstituzioak direnak eta ez direnak onartzen ditu, baina kontua da hizkuntza horiek –kitxua, besteak beste–, baliorik gabetuak direla aspaldi,

prestigioz gabetuak, eta ondorioz, gurasoek ez dutela nahi heren seme-alabek kitxuaz edo gainerako hizkuntza indigenetan ikas dezaten.

### Horixe egoera oraindik.

Gehiago esango dizut: kitxua hiztunak estatuaren administrazioari lotzen zaizkionean, antzaldatze bat gertatzen da hiztun horien baitan, espazio formaletan kitxuaz hitz egiteari uzten diote. Oso gauza arraroa... Deskolonizazio lana egin behar dugu –buruz eta gogoz deskolonizatu, oroz gain–, eta geure autoestimua berreskuratu. Hargatik ez ziguten gure aitaita-amama askok kitxuaz hitz egin, haien jasandako tratu txarra guk jaso ez genezan. Kitxua hiztunak halako doinu bat du gaztelaniaz hitz egiten duenean, eta hori salagarri luke! Hizkuntza ez irakastea biziraupen ariketa zen gure aitaita-amamen kasuan: "Ez zaizu baliagarri eta, are okerrago, kitxuaz hitz egiten duzula jakiten badute, diskriminatu egingo zaituzte". Legezko diskurtsoa osatu dugu, bai, lege marko

bat, politika publikoa ere bai kulturarte-kotasunaren eta nazio aniztasunaren inguruau, baina kontua da funtzionatzen ez duen irakaskuntza sistema elebiduna dugula, ez dituela ikasle ez irakasle elebidunak sortzen, hiztunik ere bat ere ez... Horixe egoera, lege marko guztia gorabehera.

**Paolina Vercoutere Quinche**  
Frantzia, 1976

Flandriar lehen deitura, kitxua bigarrena. Frantsesa alta, kitxua ama. Ekuadorren hazi zen haurretatik. Kultura eta Gizarte Garapena ikasketak egin zituen Otavaloko Unibertsitatean, eta Genero eta Politika Publikoak masterra Latinoamerikako Gizarte Zientzietako Fakultatean. Garabide erakundearen hizkuntza gidaritzari buruzko ikastaldian izan zen urrian Euskal Herrian.



## Harrigarri da kargu politiko zaren horrek aitortzea.

Asko hitz egiten da estatu nazio aniztun eta dibertsitatez betetakoaz, emakumea barne hartzen duenaz eta hau eta hura, baina, sakon-sakonean, ez dago egocera iraultzeko borondate politikorik. Eta pena handiarekin diot, ni sistema politiko horren barruan bainago. Eta uste dut beharrezkoa dela barruan egotea. Kanpoko aktibismoa bezain importantea da barrutik eragitea, zenbait espaziotan -minimoak badira ere-, galderak egin eta zalantzak eragitea. Ni neu, gobernadore izan baino lehen. Ekonomia eta Gizartea Barne Hartzeko Ministerioko zuzendari izan nintzen eta haurrek, adinekoak eta czgaitasunen bat duten pertsonak nituen ardura. Zuzendari izan nintzen garaian irizpide halako bat ezaurre nuen familia laguntzaileak hautatzeko garaian: elebidun izan behar ziren. Horrek erresistentzia handiak ekarri ziskidan, baita neure alderdiaren harruan ere. Arrazistatzat hartu ninduten, nire Ministerio hura indioz beterik zegoela aditu behar izan nuen. Eta orain, gobernuan nagoela ere, gisako komentarioak aditu behar izan ditut. "Ilemen indio usaina dago orain". Hamaika horrelako. Esamesa horiek hor daude oraindik. Nik, esaterako, prentsa arduradun hat dut, kitxua hiztuna jatorriz -ni ez bezala-, neuk errekrutatu nuena.

## Barkatu, ez zara jatorrizko kitxua hiztuna?

Ez. Nire inguruan espanola, frantsesa eta kitxua erabiltzen ziren. Geroago, baita ingelesa ere. Prozesu bat izan zen. Eskola libre batera joan nintzen. Ilan izan nintzen 13 urte bete arte. Harrezkero, eskola frantsesera sartu nintzen. Gazterik ezkondu nintzen, eta kitxua hiztun jatorrarekin esposatu nintzen -kitxua familia zeharo tradizionalekoa-, eta orduan, nire burua berreraiki eta kitxuaz ikasi nuen nire amarekin. Bestalde, gure ama hizkuntzaren eta kulturaren aldeko borrokalari suharra izan da beti.

## Hizkuntz kontzientziaren jabe zaitugu, dena den.

Hizkuntzaren kontzientzia dut, eta militantziaren zentzua ere bai. Horrexek mugitzen nau. Ez dut kitxuaz erraz hitz egiten, oinarrizkoa baizik. Dena ulerzen dut, eta hitz egin behar dudanean, beste erremediorik ez dudanean, hitz

## Fartsa

"Herri indigenen eskubideen aitortzarik bada, baina aitorta formalda da, ez besterik. Gainerakoan, inork ez du ahalegin txikiena ere egin nahi. Zuri-mestizoek -hau da, estatuaren egiturek-, ez dute saiatu nahi, erosoa daude beren hizkuntzan hitz egiten, ez dute esfortzurik egiteko asmorik"

## Kolonizatua

"Senarra kitxua hiztun jatorra dut, baina ez die gure seme-alabei kitxuaz hitz egiten, nahiz eta ni borroka honetan sartuta egon. Jasotako hezkuntzak kolonizatu zuen, hamaikatan esan zioten bere hizkuntzak ez zuela ezertarako balio, barneratu zuen esan ziotena, eta ez da iraultzeko gai izan. Latza da"

## Familia transmisioa

"Hiri giroan guztiz etena dugu kitxuaren familia transmisioa. Landa eremuan eusten diote transmisioari oraindik, baina landa eremuan kitxuaz hazi diren horiek hirira etortzen direnean ere, eten egiten da transmisioa. 'Indioen hizkuntza da, ez du ezertarako balio', diote. Aurreiritsi horixe da oraintxe dugun arazorik handiena"

egiten dut. Nekazarien artean, adibidez, elebidunak ez direnean, hitz egiten dut. Oso ondo hitz egiten duen jendearen aurrean, berriz, lotsatu egiten naiz, nirea ez delako haurretan ikasia, geroan baizik, eta doinuak salatzen nau. Senarrak, kitxua hiztun jatorra baita, harre egiten du nire lepotik, doinu jatorrik ez dudalako. Nire lanean, langilerik kontratatu behar dudanean, elebidunak hartzen ditut beti.

Prentsa kabineteari dagokionez, kitxua hiztun jatorra izendatu nuen zuzendari eta, harrezkero, kitxuaz eta espanolez zabaltzen ditugu gure oharkizun eta jakinazpen guztiak. Kitxua lehenestea garrantzi handikoa da niretzat, amari zor diot, amamari, nire komunitateari. Garbia izan beharra daukat, garbia iza-teari uzten diodan egunean politikatik irteko garaia izango baitut.

## Ez da aise izan behar kitxua izaten giro horretan.

Gobernadore naizela, janzkeria jakina daramat beti, neure burua politikoki errebindikatzeko bidea dut. Badakit nire janzkerak zer esan nahi duen, eintza politikoa da, emakumerik inoiz egon ez den gune hbatean nago. Militarrekin egon ohi naiz, poliziaren agintariekin, eta beharrezko zait haiekin egotea, haien iruditeria zartatzeko, hain zuzen, zeren eta oraindaino arte, emakumezko bat ni bezala jantzita zerbitzartzat hartua izan baita beti. Aheratsen etxeko lanak egiten zituen neskamea. Garranzizko zait horren kontra egitea, eta horregatik noa beti era jakin honetara jantzita. Konplikatu da, hala ere, neure alderdian bertan ere, Alianza País izenekoan ez haimaute ulertzten.

## Zer diozu kulturartekotasunari buruz? Behin eta berriz eta askotan erabiltzen den hitza.

Kulturartekotasuna diskurtso politikoki zuzenaren barrura sartu da. Hain dago erabilia, hain maiseatua, higatua... ezen esanahia galdu baitu. Gure herrian, esaterako, ez dago kulturartekotasunik. Ez, behintzat, nik ulertzten dudan moduan, nik botere banaketatzat ulertzten baitut. Alegia, host mendez produkzio bitartekoak, botere politikoa, baliabi-deak, erabakiak hartzeko ahalmena... dena izan duen horrek hori banatzen hasten denean hasiko da kulturartekotasuna. Hurkoari berdintasunez hitz egitea, era horizontalean jardutea... da kulturartekotasuna. Horixe litzateke ideala, eta horixe da ez daukaguna. Gainerakoan, hainbeste maiseatua da hitza -"tolerantea naiz" eta hau eta hura-, ezen hitzak esanahia galdu baitu eta ez du ezer esan nahi.

**Usteko nuen bestela zela giroa Otavalon.** Duela hogei urtetik hona bizi naiz Otavalon, sinbolismo handiko hiria Eku-

dorren. Gure arbasoak Imbabura muiñoaren magalean bizi ziren, hiriak guztiz baztertuak zeuzkala, hiria boteare zuri-mestizoaren erdigunea zenean. Iragan mendeko 80ko hamarkadan, hainbat dinamika komertzial tarteko, kitxuek diru arrakasta handia izan zuten eta hirlaren jabego guztiak erosi zituzten. Kitxuok egin ginen hiriaren jabe, eta horren ondorioz, botere politikoaren borrokan sartu ahal izan gin, eta historian estreinakoz, alkate indigena bat izan genuen. 1990ean, Asamblea Nazionalak Ekuadoreko kulturarteko hiriburu izendatu zuen Otavalo. Beste erremediorik ere ez zuen, tentsio betean bizi baikinen hirian –eta bizi baikara, esan beharko nuke–, indigenak eta zuri-mestizoak erdibana baikara Otavalon. Elkarri kasurik egiten ez dio gula bizi gara. Etnien arteko arazoak nahi baino gehiago dira, arrazakeria ez dago baztertua. Berniza bai, emana dago, baina urra ezazu apur bat berniz hori azkazal puntarekin eta hantxe bisitaratuko zaizu arrazakeria.

#### Etnien arteko arazoak, arrazakeria, identitate ezberdinak lurrarde berean.

Gogotik errebindikatzen dut identitatea, eta neurri berean kuestionatzen ditut, berriz, esentzialismoa eta tradicionalismoa, emakumeen aldeko borrokaren militante bainaiz. Konfliktoa eragiten dit kanpo aldera diskurtso politikoki zuzena egin beharrak. Hitzak neurtu behar izaten ditut, ez ditut esan nahi-konstituzionalismoa denak esaten, baina ezta esan behar diren hitz politikoki zuzen guztiak esaten ere. Lehendakariaren ordezkari naiz, eta ezin dut esan dena gaizki dagocia. Aurrerapenak ere izan dira. Ekuadortarra naizen aldetik, egia da hori. Doako hezkuntzara sarbidea dugu –amets hutsa duela gutxi arte–, osasun sarea, gure eskubideen gaineko kontzientzia handiagoa... Gauza asko, joan deneko hamar urtean egin direnak, estatua ikaragarri indartu denetik. Ordu arte ez baikenuen estaturik, estatuaren presentzia besterik, guri ez zegokigun egitura bat. Zuek ehunka urte darama-zue estatua eraikitzen. Gu horretan hasiberriak gaituzue.

**Politikoki zuzenaren eta barnean sentitzen duzunaren artean murgil igerian behar duzu.**

Bai, bada. Eta, esaterako, horretaz ari

## BIZKAIKO FORU LIBURUTEGIA

### LiburuTEKia VI. jardunaldiak

Diputazio Kalea, 7 - 2. solairua, areto nagusia  
48008 Bilbo, Bizkaia · 944 608 24 87

#### » Erakusketa: Euskal mitologia

Data: Abenduaren 11tik urtarrilaren 5era  
Ordutegia: Astelehenetik ostiralera: 10:00-14:00 eta 16:30-19:30  
Larunbatean: 10:30-13:00

#### » Literatura Topaketak: Jabler Kalzakorta

Data: Abenduak 1  
Ordua: 19:00  
Izenburua: Olentzero tradiziozko euskal kantutegian  
Hizkuntza: euskaraz

#### » "Ezkerraldeko ipuinak" liburuaren aurkezpena

Data: Abenduak 19  
Ordua: 19:00  
Hizlariak: Itziar Minguez, David Tijero  
Hizkuntza: Elebiduna (euskaraz eta gaztelaniaz)  
Doako sarrera, edukiera osatu arte (Foru Liburutegian sartu ahal izateko, NAN, pasaportea edota Liburutegiko txartela aurkeztu behar da sarreran)

### Rekalde Aretoa

Rekalde Zumarkalea, 30 - 48009 Bilbo, Bizkaia · 944 06 85 32

#### » Euskararen eguna ospatzten (euskaraz)

Data: Abenduak 2  

- Ordutegia: 10:30-11:45, 3-6 urte
- Ordutegia: 12:00-13:30, 7-11 urte

 Rekalde Aretoan "Euskararen nazioarteko eguna" ospatzten dugu urtero. Taller honetan euskararen erabilpena sustatu nahi dugu dinamika eta arketako plastikoak bitartez.

#### » Familiarentzako tallerra (euskaraz eta gaztelaniaz)

Data: Abenduak 16  
Ordutegia: 11:00-13:00, 4-11 urte bitartekoentzat heldu bat edo bi lagun dituztela.  
"Espazioak eraldatzen" izenburuean, Ixone Sádabak aretoa nola eraldatu duen ezagutuko dugu eta guk ere hainbat elementu erabilita, espazioa eraldatuko dugu eta gure lekukoko egindako instalazioa sortuko dugu.

#### » Gabonetako tallerra (euskaraz eta gaztelaniaz)

Data: Abenduak 26, 27 eta 28  

- Ordutegia: 10:30-11:45, 3-6 urte
- Ordutegia: 12:00-13:30, 7-11 urte



[www.bizkala.eus](http://www.bizkala.eus)

naiz master txostenia idazten, generoaren ikuspegitik aztertzen nola bizarauten dugun emakumeek espazio horietan.

**Masterra idazten ere ari zara. Zer diozu lan horretan, jakin baliteke?**

Nondik naturren kontatzen dut, nire bizi esperientzia azaltzen dut teoria feministaren barnean. Sentimenduetatik abiatu eta amamaren, amaren, aitaren eta neure narrazioa osatu dut, teoria-rekin lotuz. Beste alde batetik, hainbat elkarritzeta egin ditut, hala kitxua direnen artean nola ez direnen artean, emakumeei buruz duten iruditeriaz galdezza. Nik neuk emakume kitxuatza berresten dut nire burua, berdin etik berdinera begiratzeko diot ondokoari. Jaso dudan heziketari zor diot. Ez nago inoren aurrean begirada jaisteko prest. Eta horrek probokatu egiten du, aitzoragarri zaio askori. Eta horixe nahi dut nik, beren baitan duten emakume indigena zerbitzariaren irudia deseraikitzea. Horixe da nire borroka.

**Euskal Herrian izan zara Garabide erakundearen ikastaroan. Zer ikusi duzu, zer asmo duzu Ekuadorren?**

Ikusi dut gauza ez dela lider baten kontua, sinergia eta gizartearen baitako askotariko faktoreen batura lortzea baizik. Kooperatibak ikusi ditudalarik, adibidez, pentsatu dut horrek ekonomian ez ezik, maila politiko, sozial eta kulturalean ere izan behar duela eraginik. Kolektibitate osoari dagokiola fenomenoa. Ekuadorren, berriz, espazio bat sortu nahiko nuke hezkuntza sisteman barnean. Lehendakariaren eta Hezkuntza ministroaren sostengua dut. Ez dut gordin esateko ohiturarik: "Hez-



**Azken hitza:  
Kitxuaz**

"Unibertsitatean graduatzeko garaian, kitxuaz egin genuen tesia ojagunen artean. Ordurako, konstituzioan jasota zegoen gure hizkuntzen jarduteko eskubidea. Gure aurraan, epaimahaia, inork ere kitxua ulertzen ez zuela. Nire kideak kitxuaz egin zuen aurkezpena, nik bat-bateko itzulpena egin nior. Epaimahaian, batak besteari ga deitzeren zioten: 'Zergatik hitz egiten dute horrela?', 'Konstituzioan jasota dago, eskubidea dute', 'Legezkoa da?', 'Ba', 'bai! Horrelaxel Kar, kar...'

kuntza sistemak ez du funtzionatzen". Ez Aldiz, esan ohi dut: "Eredu elebidon bat proposatu nahiko nuke Otavalon...". Eta hainek, baietz: "Aski indar baduzu, aurreral". Eta nik horixe nahiko nuke, eredu berri bat eraiki, eta bitartean, hezkuntza eredua birpentsatu, ez batiogu herri kolonizatu izateari utziko hezkuntza sistema irauli artean, guztiz memoristikoa baita, gizabanako bezala ezereztu egiten baikaitu, aldi orogu minimizatzen, autoestimua oinpean arrastaka eramatera behartzen... Hezkuntzaren bidetik etorriko da hizkuntza berreskuratzea, eta hizkuntza berreskuratzea gure kultura, gure izatea eta gure mundu ikuskera berreskuratzea izango da. Ardura horixe daukat, horrexegatik nago nagoen lekuaren orain. ■

**Diman  
euskaraz gara**



**Nazioartea (<http://www.argia.eus/nazioartea>) > Estaturik gabeko nazioak (<http://www.argia.eus/estaturik-gabeko-nazioak>) > Amazigh herria (<http://www.argia.eus/amazigh-herria>)**

**MILOUDA EL HANKARI, AMAZIGERA EKINTZAILEA**

## **"Gure hizkuntzak ez zuela ezertarako balio sartu nahi izan digute buruan"**

Milouda El Hankari ekintzaileak amazigeraren tarifit aldaera du ama hizkuntza. 1968an jaio zen Al-Hoceiman (Rif eskualdean, amazigeraz Arrif). Garabide erakundeak eratua duen hizkuntza gidaritzari buruzko ikastaroan izan zen iragan urrian Aretxabaletan (Gipuzkoa).

MIEL ANJEL ELUSTONDO (<http://www.argia.eus/argia-astekaria/egileak/miel-anjel-elustondo>)  
2017ko abenduaren 24a



Argazkia: Zaldi Ero.

### **Txantxa egin diguzu zure deituraren lepotik.**

Bai, nire deitura El Hankari-k, kasik "lehendakari" hitzaren hots bera baitu. Kar, kar...

### **Ez zara Arrifeko lehendakari, bistan da...**

Ez, Arrifen jaiotako ekintzailea naiz. Soziologia ikasi nuen, Cádizen (España) bizi naiz gaur egun, gure identitatearen eta gure kulturaren alde borrokan, gure herriarentzat era guztietako hobekuntzak nahi baititut, denok sartzeko moduko herri bat, Marokoko dibertsitate guztia aintzat hartuko duen herrialdea. Askok ez du usteko, baina Maroko asko dira Marokoren barnean, hamaika identitate eta kultura ditu. Nik herrialde demokratiko bat nahiko nuke, denok sartzeko moduko bat.

### **Denok, eta hizkuntza guztiak.**

Ez zait gustatzen hizkuntza nagusi bat izatea, batetik, eta mendeko mordoxka, bestetik. Denok –eta hizkuntza guztiok–, dugu berdintasunez bizitzeko eskubidea. Egoera ez da erosoa, zentralismo handia baitago Marokon, eta periferiak bazterturik baitaude. Arrifekoa, hala ere, kasu berezia da, inoiz ez baitu izan sumisio harremanik Marokoko Gobernuarekiko. Bere historia eta bide propioak egina da Arrif. Hor ditugu 1921eko Abdelkrim Jatabik aldarrikatutako errepublika –Afrikan inoiz eratutako lehena, 1921etik 26ra bitarte iraun zuena–, edo 1958-59an izaniko borrokak eta Hassan II.ak eragindako

genozidioa, kasu. Eta orduan bezala orain, ez dugu nahi berdinetik berdinera jardutea besterik, gure kultura eta gure hizkuntzaren jabe eta gutxieneko ongizatea izatea: azpiegiturak, ospitaleak, unibertsitateak... 1958-59ko erreboltagero, zona militarizatua izendatu zuten Arrif, eta izendapen horrexekin irauten du.

### **Mohamed Xukri idazleak zioen Arrifetik Tangerriera egin zuela, mendietan jatekorik ere ez zuelako.**

Los representantes indígenas permanecerán a lo largo de este mes de octubre de la mano de la asociación Garabide acumulando información sobre la experiencia en la revitalización del euskera y compartiendo la suya con sus idiomas. El Ayto. de Beasain ha participado en este proyecto ofreciendo unas sesiones intensivas a través de dos cursos en Euskaltegi municipal.

Aitor Aldasoro ha comunicado que el Ayto. colaborará con Garabide los próximos cinco años en este proyecto y dicho acuerdo se plasmará en el convenio a firmar el año que viene. De este modo, se promoverá la cooperación lingüística con los países en vías de desarrollo que cuenten con lenguas minoritarias. Actualmente el Ayto. dispone del 1 % de su presupuesto para ayudas a países en vías de desarrollo, por lo que una cuarta parte de esa partida se destinará al convenio que se suscribirá con Garabide, ya que impulsando la supervivencia de las lenguas se fortalece la identidad de los pueblos.

Una vez que los representantes indígenas reciban los dos cursos intensivos de hoy, finalizarán la visita a Beasain con la charla que ofrecerán mañana a las 19:00 de la tarde en el palacio de Igartza junto al vicepresidente de Garabide Jon Sarasua.

[Tweet](#)

[Compartir](#)

1

[Compartir](#)

⌚ WhatsApp (whatsapp://send?text=http%3A%2Fwww.beasain.eus%2Fes%2Fotros-noticias%2F921-el-ayto-apoya-junto-a-garabide-la-labor-a-favor-de-las-lenguas-minoritarias El%20Ayto.%20colabora%20con%20Garabide%20en%20la%20labor%20de%20revitalizar%20las%20lenguas%20minoritarias)

✉ E-mail (mailto:  
subject=El%20Ayto.%20colabora%20con%20Garabide%20en%20la%20labor%20de%20revitalizar%20las%20lenguas%20minoritarias&body=http%3A%2F%2Fwww.beasain.eus%2Fes%2Fotros-noticias%2F921-el-ayto-apoya-junto-a-garabide-la-labor-a-favor-de-las-lenguas-minoritarias)

.telegram (tg://msg?text=http%3A%2F%2Fwww.beasain.eus%2Fes%2Fotros-noticias%2F921-el-ayto-apoya-junto-a-garabide-la-labor-a-favor-de-las-lenguas-minoritarias El%20Ayto.%20colabora%20con%20Garabide%20en%20la%20labor%20de%20revitalizar%20las%20lenguas%20minoritarias)

## NOTICIAS

[Deporte \(/es/deporte\)](#)

[Cultura \(/es/cultura\)](#)

[Gobierno municipal \(/es/gobierno-municipal\)](#)

[Infraestructuras y servicios \(/es/infraestructuras-y-servicios\)](#)

[Mobilidad y tráfico \(/es/mobilidad-y-trafico\)](#)

[Otros \(/es/otros\)](#)

## ÚLTIMAS NOTICIAS

2017, SEPTIEMBRE 22

**Ayudas en las tarifas por... (/es/otros-noticias/875-ayudas-en-las-tarifas-por-la-utilizacion-del-polideportivo-municipal)**

2017, OCTUBRE 24

**Resultados de los concursos de... (/es/cultura-noticias/974-resultados-de-los-concursos-de-manzana-reineta-y-frutas-y-verduras)**

2017, OCTUBRE 23

[Hasiera](#) • [Euskararen Etxea](#) • [Hizkuntza Gutxituak](#) • [Berriak](#) • Garabidek antolatutako Hizkuntza Biziberritzeko Gidaritzari Buruzko Ikastaldi Trinkoa



## *Garabidek antolatutako Hizkuntza Biziberritzeko Gidaritzari Buruzko Ikastaldi Trinkoa*

2017ko Urriaren 10a  
EHU-UPV Unesco Katedra

Pasa den urriaren 2an hasi zen [Garabide](#) elkarrekin antolatutako hizkuntzen biziberritzean gidaritza profila duten eragileei zuzendutako ikastaldi trinkoa. “[Hizkuntza Biziberritzeko Gidaritzari Buruzko Ikastaldi Trinkoa](#)” izenburupean, **ikastaldiak estrategia orokorretan zentratua dagoen formazio intentsiboa eskainiko die 8 hizkuntza gutxiagotuetako 12 agintariei**. Parte-hartzaile horien jatorriak honako hauek dira: Kichwa (Ekuador), Quechua (Peru), Nasa (Kolonbia), Kaqchikel (Guatemala), Nahuatl (Mexico), Yukatango maia (Mexico), Amazigh (Maroko) eta Maputxeak (Txile).

Ikastaldiak urriaren 30era arte iraungo du eta formazio projektu bat izango da, hizkuntza berreskurapenaren inguruan lanean ari diren herri indigenetako erakundeak indartzera bideratuta dagoena. Funtsean, **euskal esperientziaren eta hizkuntzaren berreskurapenerako gakoen gaineko formazioa eskainiko zaie** aipatu ditugun munduko hizkuntza komunitate gutxituetako ordezkariei, ondoren beraiek euren prozesuaren protagonista izan daitezen.

Gainera, parte-hartzaileek euskalgintzaren zein instituzioen hainbat entitate bisitatuko dituzte (Euskaltzaindia, Berria, HUHEZI, Kafe Antzokia, Oihaneder Euskararen Etxea, Udaletxeak, Diputazioak, hezkuntza zentroak...) ikasitakoa bertatik bertara ezagutzeko eta, halaber, sentsibilizazio ekintzak (mahai inguruak eta proiekzioak) egingo dira herri eta eskoletan euskal gizartearekin esperientzia trukerako tartea eskaintzeko asmoz. Hain zuzen ere, hemen egingo dira sentsibilizazio ekintza nabarmenenak:

- Arizmendi ikastola, urriak 9
- Biriatuko Ikastola eta Etxepare Lizeoa, urriak 12
- Barañain, urriak 10
- Beasain, urriak 11
- Unibertsitateak: EHU, HUHEZI, urriak 16
- Oiartzun, urriak 17
- Usurbil, urriak 20
- FAGOR taldea, urriak 24

Azpimarratu beharra dago, liderrei zuzendutako ikastaldi honetan emakumeek izango duten presentzia, 12 partaideetatik 7 emakumezkoak baitira.

Informazio gehiago [hemen](#).

Maroko, Ekuador, Txile eta Kolonbiako partaideei Berrian egindako [elkarritzeta](#).

Tags: Garabide hizkuntza gutxiagotuak hizkuntzen berreskurapena hizkuntzen biziberritzea



**Emun Aholkulariak**

@emun\_taldea

Jarraitzan



@garabide tik gurera etorri dira hainbat hizkuntza komunitatetatik lan munduaz ikastera. Gaurkoan ere guztiok ikasi dugu!



20:36 - 2017 urr. 11

7 Retweets 4 Likes



7



4



4



**Garaziko Gaztetxea** erabiltzaileak 3 argazki gehitu ditu.

Urria 14 ·

...

Gau huntan momentu goxoa pasa dugu Gaztetxean Hego Amerikako populuetako ordezkari batzuekin (Ketxua, Nasa, Maputxe, Maya...). Beren hizkuntzen biziberritzeaz eta gure hizkuntzaren, Euskararen bizi penetik trukaketan.

Milesker bihotzez Garabide elkarteari eta ezagutu ditugun altxorrezko pertsona hauei.

Fite arte agian !

#GipuzkoakoGarabide #Gaga #Garabide Kultur Elkartea



Atsegin dut

Iruzkindu

Partekatu

Zu eta beste beste 34



Idatzi iruzkin bat...



## Usurbildarrak aurrera

Usurbil

# Urriaren 22an 'Mundualdia' jaialdia ospatuko da Usurbilen

Posted on 2017/10/16 | Utzi iruzkina



**Usurbilgo Udalak eta hainbat herritarrek urriaren 22an (igandea) Mundualdia jaialdia antolatu du. Eguna beraz gain, beste hainbat ekimen ere antolatu dira. Jarraian egitaraua:**

## URRIAK 16ETIK 25ERA ERAKUSKETA

- “Emakumeak Afganistan” Sutegiko erakusketa gelan.
- Egileak: Gervasio Sanchez eta Mónic Bernabé. Euskal Fondoa.

- Ordutegia: Ordutegia: astelehenetik ostiralera, 17:30-19:30. Larunbatean: 11:30-13:00.

## URRIAK 20, OSTIRALA

- **18:00** Garabidek aurkeztutako "Arnasa Txikitxuak" dokumental proiekzioa eta solasaldia dokumentalean aztertzen diren nasa eta kitxua hizkuntza komunitatetako ordezkarien Potxoenean.
- **18:00** "Munduko ipuinak" Potxoeneko sotoko gelan, 5 urtetik gorakoentzat, Maite Franko ipuin kontalariarekin.

## URRIAK 22, IGANDEA: MUNDUALDIA JAIA

- **11:30** Alkatearen agurra. Aurkezpena herriko dantzariekin.
- **12:00** Cultural group taldearen eskutik munduko dantzak.
- **Ondoren**, Asociacion Internacional Union 5 Estrellas taldearen dantzak.
- **13:00** Jatorri ezberdinak herritarrek prestatutako jakien dastaketa.

## AZAROAK 2, OSTEGUNA

- **18:00** Hitzaldia Potxoenean: "Islamofobia gure gizartean". Hizlaria: Tarana Karim, SOS Arrazakeria.

## HAIRA RIVERO ARRIETA KARTELAREN IRABAZLEA



Arg.: Noaua!

Usurbildar guztien bilgune izan nahi duen jaialdia iragartzeko kartelaren lehiaketa antolatu zen eta dagoeneko badu irabazlea: **Haira Rivero Arrieta**.

*"Zati ezberdinekin osatu nahi nuen kartela. Ez nekien argazkietatik egin edo ez. Argazkiena bisualegia iruditzen zitzaidan. Ez nuen pertsona bat edo inoren aurpegia jarri nahi, azkenerako pertsona asko baikara. Grafikoagoa egin nahi nuen, ikusitakoaren esanahia momentuan bertan ulertzeko. Kolore desberdinak*

# Noticias

## Copreci recibe a GARABIDE

25-10-2017



**La cooperativa de Aretxabaleta organiza junto con representantes del Grupo Fagor una sesión sobre la importancia de las lenguas minoritarias.**

A ella asistieron como invitados la Gobernador de Imbabura (Ecuador), un Representante de Tosepan, cooperativa mexicana y el Director del Centro de Educación e Investigación Indígena del Cauca (Colombia).

Garabide es una organización que propone un nuevo tipo de cooperación basado en el intercambio de experiencias. De acuerdo a su objetivo, se están organizando una serie de encuentros para compartir la experiencia de recuperación del euskera con comunidades lingüísticas minorizadas de pueblos indígenas del sur, siempre teniendo en cuenta que la cooperación lingüística está intrínsecamente relacionada con la sostenibilidad, la defensa de los derechos humanos y la igualdad de género.



# Albisteak

## COPRECIK GARABIDE HARTU DU

2017-10-25



**Aretxabaletako kooperatibak eta Fagor Taldeko ordezkariek saio bat antolatu dute hizkuntza minoritarioen garrantziaren gainean.**

Saioan egon ziren, gonbidatu gisa, Imbaburako gobernatzalea (Ekuador), Mexikoko Tosepan kooperatibako ordezkarri bat eta Caucako Heziketa eta Ikerketa Indigenarako Zentroko zuzendaria (Kolonbia).

Esperientzien elkartrukean oinarrituta kooperazio era berria egitea proposatzen duen elkartea da Garabide. Bere helburuarekin bat etorrita, hainbat topaketa antolatzen ari dira hegoaldeko herri indigenen hizkuntza komunitate minorizatuekin euskararen berreskurapenaren esperientzia partekatzeko, betiere kontuan izanda hizkuntza lankidetza erabat erlazionatuta dagoela iraunkortasunarekin, giza eskubideen babesarekin eta genero berdintasunarekin.



**Patxi Baztarrika**

---

## Garabidek antolaturiko ikastaldia hizkuntza gutxituen biziberritzeko prozesuen gidaritzari buruz

Publicado el 2017/10/26 por Patxi Baztarrika

Atsegin dut Partekatu 18 people like this. Be the first of your friends.



Urriaren hirugarren astea, aste trinko eta ezin aberatsagoa izan nuen. Zorionekoan ni bi egunetan izan nituen hitzaldi eta solasaldiengatik: urriaren 19an Aretxabaletan izan nintzen, Garabidek antolaturiko ikastaldian; eta biharamunean, urriaren 20an, Bilbon, Bizkaiko Abokatuen Elkargoko “Abokatu euskaldunak” Batzordeak antolaturiko hitzaldi-solasaldian. Bietan handiagoa izan zen bertaratuengandik jaso nuena nik beraiei eman nien baino. Bihoakie nire esker ona guziei, antolatzaleei eta bertaratuei.

Garabideren ikastaldian izandako parte hartzeaz arituko naiz hemen. Beste sarrera bat egingo dut bihar Bilboko hitzaldi-kolokioaz.

**“Zer da hizkuntza batentzat benetan hilgarria?: hiztunak bere hizkuntzarekiko estimurik eza, ez erabiltzerainoko estimurik eza”.**

Zasta!, galdera hori bota nien Garabidek antolaturik hizkuntza biziberritzeko lidergorako ikastaldian entzule izan nituen 12 agintariei, elkarrekin bete genuen egun osoko saioa hasterako. Neuk ezer kontatu aurretik, beren iritzia ezagutu nahi izan nuen, galdera horren gainean. Bakotzak bere erantzuna idatziz eman zuen. Ez da, noski,

erantzun bakarreko galdera, eta nik erantzun bakarra emateko errege egin nien –edo hori zailegi zitzainaonak gehienez bi eman zitzala-. Kuriosoa da baina kointzidentzia handia adierazi zuten bakoitzak bere aldetik. Erantzun nagusia, ez bakarra: hiztunak bere hizkuntza estimutan ez hartzea, ez erabiltzeraino eramatzen duen estimurik eza.

Garabidek urteak daramatza munduko hainbat hizkuntz komunitaterekin kooperazio linguistikoa garatzen. Batez ere, baina ez bakarrik, Latinoamerikako hizkuntz komunitateekin gauzatu du eta gauzatzen du bere lankidetza. Eusko Jaurlaritzan Hizkuntza Politikarako sailburuorde lanetan aritu nintzenean Garabideren lan eskerga oso gertutik ezagutzeko aukera izan nuen, eta elkarlanean urrats bidegile eta aurreragarriak eman genituen. Nazioarteko kooperazio ohikoari beste dimentsio bat eman dio Garabidek. Izan ere kooperazio gai bihurtu baitu tokian tokiko hizkuntza propioak (indigenenak) berreskuratzeko lankidetza. Txalotzekoa eta oso aintzakotzat hartzekoa da Garabideren lan jarraitua.

Urrian hizkuntza gutxitutako hamabi gidari eta agintariri zuzendutako ikastaldi trinkoa antolatu du, 140 klase ordukoa: hitzaldiak, mahainguruak, proiekzioak, bisita gidatuak... denetarik izan da programan. Ikastaldiaren helburua izan da hizkuntza biziberritzeko estrategiei buruzko prestakuntza ematea, euskararen biziberritzeko prozesua oinarritzat hartuta.

Egun osoko saio bat zuzentzeko proposamena egin zidaten, eta horretan ahalegindu nintzen urriaren 19an, Aretxabaletan, zazpi ordutaraino luzatu zen saioan. Hitzaldiari ondorengo izenburua jarri nion: “Euskararen biziberritzeko prozesua 30 urtez Euskadiko Autonomia Erkidegoan: hizkuntza politikak, estrategiak eta gako nagusiak”. Oso gustura aritu nintzen, oso gustura solasean, hizkuntza gutxitutako hainbat komunitatetako gidarien galdera eta ikuspuntu arrazoituen gainean hausnarrean.

Nire mintzaldian neurri baten jorratzen saiatu nintzen kontuak ondorengoak izan ziren: hizkuntza aniztasunaren balio soziala gizarte eraikuntzan, euskararen kasuaren paradigma, euskararen bilakaera desberdina bere hiru lurretan, euskara biziberritzeko prozesuaren lotura EAEn 8okoa hamarraldian abiatutako eraldaketa sozial eta modernizazio prozesuarekin, euskarak gainbeheratik hazkunde jarraitura egindako bidea, hizkuntza biziberritzeko euskal ereduaren ezaugarri nagusiak, Euskadiko aldaketa soziolinguistikoaren estatistikak, euskararen hazkundearen paradoxak eta aurpegiak, hazkundea eragiten edo moteltzen edo eragozten duten faktoreak, aldaketa soziolinguistikoaren palankak, euskal autogobernuaren ekarprena, herri aginteen eginkizuna, euskararen biziberritzeko prozesuaren legezko oinarriak, Euskararen legea eta bere legezko garapen zabala eta askotarikoa, hizkuntza politika eta plangintza eremuz eremu, politika horren estrategiak eta gako nagusiak, hizkuntza plangintzarako baliabideak, hizkuntza politikaren arrakastarako giltzarriak eta etorkizuneko erronkak. Ordu askoz aritu ginen baina aztergai gehiago izan genituen, eta, ezinbestez, hainbat kontu kontatzeke edo nahi beste hausnartu gabe geratu behar izan ziren.

Nire esker onik zintzoena adierazi nahi diet Garabideri eta egun osoan jardunaldian parte hartu zuten hizkuntza gutxituen hainbat komunitatetako hamabi agintari lagunei.

Eskerrik asko beren komunitateetako hizkuntzetan esanda:

Nahuatl (Mex) tazojkamatik

Kichwa eta quechua yupachani

Guarani yasoropai


Nasa pay pay

Amazigh tanemmirt

Kaktxikel mati'ox

Mapuzungun chaltu may

Maia yukateko Nib óolal





## Partekatu - Comparte:



### Acerca de Patxi Baztarrika

Patxi Baztarrika Galparsoro (Ataun, 1958) Filosofia eta Letretan lizentziatua Euskal Herriko Unibertsitatean. 2005etik 2009ra eta 2012ko abendutik aurrera, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako sailburuordea. Lehenago Andoaingo Udalean hizkuntza teknikari modura aritutakoa. 'Babeli gorazarre' liburuaren egilea (2010).

[Ver todas las entradas por Patxi Baztarrika →](#)

Esta entrada fue publicada en [Idatziak-Artículos](#). Guarda el [enlace permanente](#).

---

### Patxi Baztarrika

Funciona con WordPress.

**Patxi Baztarrika**

## Garabide: Curso de liderazgo en revitalización lingüística

Publicado el 2017/10/26 por Patxi Baztarrika

Atsegin dut Partekatu 14 people like this. Be the first of your friends.



La tercera semana de octubre ha sido para mí una semana especialmente intensa y enriquecedora. El día 19, jueves, participé en el curso intensivo organizado por Garabide, y al día siguiente, 20 de octubre, viernes, participé en Bilbao en la conferencia-coloquio –y bastante más que eso– organizado por la Comisión “Abokatu euskaldunak” del Colegio de Abogados de Bizkaia. En ambos eventos fue mucho más lo que recibí que lo que yo les aporté a los asistentes. Mi más sincero agradecimiento a los organizadores y a las personas asistentes a ambos eventos.

En esta crónica voy a compartir contigo, lector y lectora, mi vivencia en el curso de Garabide. En otra entrada, mañana, me referiré al evento de “Abokatu euskaldunak” de Bizkaia.

***“¿Qué es lo verdaderamente letal para una lengua?: la baja estima con respecto a la lengua de sus hablantes, que les conduce a no usarla”.***

Antes de dar comienzo a mi charla de la jornada de Garabide el día 19 de octubre en Aretxabaleta, a modo de comienzo y para romper el hielo, lancé esa pregunta a las 12 personas líderes y representantes de comunidades de lenguas minorizadas asistentes al curso. Quería conocer su punto de vista antes de que yo les contara nada. Me

interesa mucho. Cada una de las 12 personas escribió su respuesta, sin que hubiera precedido ningún contraste de pareceres. Se trata de una pregunta que no tiene una respuesta única; caben varias respuestas complementarias, de ahí precisamente su interés. Yo les pedí que escribieran tan solo un factor o a lo sumo dos, no más. Así lo hicieron. Les estoy muy agradecido. Curiosamente se produjo un alto nivel de coincidencia en las respuestas. La respuesta más repetida fue: *la baja estima de sus hablantes con respecto a la lengua, tan baja que les conduce inexorablemente a no usarla.*

Garabide posee una trayectoria prolongada en el tiempo en la cooperación lingüística, sobre todo –aunque no solo– en el ámbito de comunidades lingüísticas de Latinoamérica. En los 8 años de ejercicio de la responsabilidad de viceconsejero de Política Lingüística del Gobierno Vasco conocí muy de cerca y directamente el importante trabajo de Garabide, y desarrollamos conjuntamente una fructífera e innovadora colaboración. Garabide ha sabido dar una nueva dimensión a la tradicional cooperación con los países necesitados de grandes dosis de desarrollo, y lo ha hecho porque ha incorporado la recuperación de las lenguas propias de cada lugar (lenguas indígenas) a las materias objeto de la cooperación. La tarea permanente de Garabide es digna de ser reconocida y tomada en consideración.

En este mes de octubre que llega a su fin Garabide ha llevado a cabo un curso intensivo de 140 horas dirigido a 12 líderes y autoridades de comunidades con lenguas minorizadas. El objetivo de este curso –que ha contado con conferencias, mesas de debate, proyecciones y visitas guiadas– ha consistido en ofrecer una formación sobre las estrategias de revitalización lingüística, a partir del caso del euskera.

Las personas responsables de Garabide me encargaron la impartición de una jornada completa sobre las políticas públicas de revitalización del euskera, y eso es lo que procuré realizar por espacio de 7 horas el día 19 en Aretxabaleta. El título de la maratoniana conferencia fue el siguiente: “30 años de revitalización del euskera en Euskadi (Comunidad Autónoma de Euskadi): políticas lingüísticas, estrategias y principales claves”. Me encontré muy a gusto porque las 12 personas líderes hicieron que todo fuera fácil, y estuve muy a gusto compartiendo reflexiones sobre el caso del euskera y sobre las preguntas, repreguntas y puntos de vista de las 12 personas representativas de diferentes comunidades lingüísticas. Solo con las preguntas se puede aprender mucho.

Los temas que, con mayor o menor profundidad, procuré abordar en mi conferencia de mañana y tarde fueron los siguientes: la importancia y el papel de la diversidad lingüística en la construcción social, el caso paradigmático de la revitalización del euskera, la evolución social desigual del euskera en sus tres territorios, la incardinación de la revitalización del euskera en el proceso de modernización y transformación social iniciada en los albores de la década de los 80, el tránsito del declive al crecimiento del euskera, las características principales del “modelo vasco” de revitalización lingüística, el cambio sociolingüístico de Euskadi en cifras, paradojas del crecimiento social del euskera, la contribución del autogobierno político y económico vasco, factores que inciden en el crecimiento del euskera, las palancas del cambio sociolingüístico, el papel y función de las instituciones públicas, las bases jurídicas del proceso de revitalización del euskera, la Ley del Euskera y su desarrollo legal y reglamentario, la política y planificación lingüística, estrategias, los principales y concretos ámbitos de desarrollo de la política lingüística, objetivos y recursos públicos para la planificación lingüística, los factores decisivos para el éxito de un proceso de revitalización lingüística y retos de futuro. Fueron muchas horas de trabajo, pero era mayor el número y alcance de los temas a tratar: hubo temas que no pudimos abordar y otros que los analizamos con menor profundidad que la deseada dada la limitación del tiempo.

Quiero expresar mi más sentido agradecimiento a Garabide y a las 12 personas líderes y representativas de diversas comunidades lingüísticas que participaron activamente en la larga jornada. Son mis nuevas amigas y mis nuevos amigos.

Quiero decirles GRACIAS en su lengua propia, en señal del máximo respeto y reconocimiento de su lengua, cultura e identidad propias:

Nahuatl (Mex) tazojkamatik

Kichwa eta quechua yupaichani

Guarani yasoropai


Nasa pay pay

Amazigh tanemmirt

Kaktxikel mati'öx

Mapuzungun chaltu may

Maia yukateko Nib óolal





## Partekatu - Comparte:



### Acerca de Patxi Baztarrika

Patxi Baztarrika Galparsoro (Ataun, 1958) Filosofía eta Letretan lizentziatua Euskal Herriko Unibertsitatean. 2005etik 2009ra eta 2012ko abendutik aurrera, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako sailburuordea. Lehenago Andoaingo Udalean hizkuntza teknikari modura aritutakoa. 'Babeli gorazarre' liburuaren egilea (2010).

[Ver todas las entradas por Patxi Baztarrika →](#)

Esta entrada fue publicada en [Idatziak-Artículos](#). Guarda el [enlace permanente](#).

---

### Patxi Baztarrika

Funciona con WordPress.

# Bizitzagatik eta lurralteagatik borrokatu gara. Hizkuntzaren ordua da.

azaroa 2, 2017 | [Albisteak, Elkarrizketak](#)



**Diego Yatakwe.** CEDICIC-en zuzendari orokorra (Centro de Educación, Capacitación e Investigación para el Desarrollo Integral de la Comunidad).

Diego Yatakwe joan den asteartean, urriak 31, Kurutziaga ikastolan bisitan izan genuen Nasa herriko ordezkartzako kidea da. Kolonbiako estatuaren barruan, Nasa herria Caucako departamenduaren iparraldean bizi da. Euren hizkuntza, *Nasa Yuwe*, transmititu eta errekuperatzeko asmoak ekarri du Diego Garabide elkartea antolatutako "[Hamaika amets eta bat gehiago](#)" ikastaro trinkora Nasa komunitateko beste ordezkari batzuekin batera.

**CEDICIC-eko zuzendari orokorra zara. Zein da erakunde horren zeregin nagusia?**

Hogei urtetik gora daroaguz Nasa herriarentzako hezkuntza proposamen bat lantzen. Pausoz pauso joan gara: lehen hezkuntza, bigarren hezkuntza, batxillergoak... Gaur egun goi zikloetako hezkuntzarekin ari gara lanean, zelanbait esanda, unibertsitate ikasketekin.

Gure kultura eta identitatea kontuan hartuko dituen hezkuntza eredu propioa lantzea da helburua, komunitatearen beharrei erantzongo diena. Sarritan gertatzen baita nasa indigena bat, edo nasa ez dena, ohiko unibertsitate batean ikasketak egin eta komunitatera itzultzen denean, metatutako ezagutza baduela baina ez dakiela horrekin komunitatean zelan eragin. Hortik dator goi zikloetako hezkuntzaren premia.

### **Proposamen horretan zer leku du *Nasa Yuwe* hizkuntzak?**

Ironia itzela da, egia esan. Hezkuntza propioaz ari gara, indigena izatearen kontzientzia sendoa dagoela diogu, baita antolatzeko era bat ere, baina hizkuntzarena egundo egoki heldu ez zaion gaia izan da. Suposatzen da Kolonbia estatu elebiduna dela baina benetan ez da. Bestalde, jende askok uste du gure hizkuntzak etxerako baino ez duela balio, beraz, gurasoen ardura dela haren irakaskuntza. Hezkuntza arautuan sartu, sartu da, baina astean bi edo, gehienez hiru orduz ez oinarrizko hizkuntza legez.

### **Hala ere, 2012. urtean Wasakkwewe'sx-ak jarri zenituzten martxan, gure ikastolen antzeko proiektu bat.**

Wasakkwewe'sx-ak murgiltze esperientziak dira. Bertara doazen ume gehienen gurasoak ez dira Nasa Yuwe hiztunak. Toribio eskualdeari buruz ari gara, 35.000 biztanle inguru dituena. Biztanlegoaren %39ak hitz egiten eta ulertzen du gure hizkuntza baina gehiengoak ez bata ez bestea. Hortik dator hizkuntzaren berreskurapenerako alternatibak pentsatu eta planteatu beharra.

### **Harrera ona izan dute Wasakkwewe'sx-ek?**

Bai. Proba piloto legez ikusten ditut eta ukaezina da bidea zabaltzen ari direla. Era berean erakusten digu zelan eraldatu behar den eskola *Nasa Yuwe* hizkuntzan izan dadin. 2012. urtean 6 ikaslerekin hasi ginuen eta gaur egun 120 badira hiru Wasakkwewe'sx-eten.

### **Hori guztiori Toribio lako eskualde batean non biztanlegoren %97ak bere burua indigenatzat duen.**

Bai, baina kontuan hartu Kolonbian 50 urte deroatzan gatazka armatu bat bizi dugula. Gainera, gatazka horrek bereziki gogor jo du gure eskualdea. Gure lana kontzientzia eta identitatea beste logika batetik sortzea izan da. Lehenengoa eta behinena bizitzaren eta lurraren defentsa izan da, hau da, geu talde moduan antolatzea. Hori lortu genuen baina ezin da ukatu hizkuntzaren faktorea ez dela lehentasuntzat hartu prozesu horretan. Gaur egun, identitateari dagokionez hurrengo eman beharreko pausoa zein den pentsatzen ari gara, eta, nire ustez, pauso hori hizkuntzaren berreskurapena da.

### **Egoera horretan egonik, zein da Garabideren ikastaroaren helburua?**

Helburu nagusia Euskal Herriko esperientzia ezagututa, bere alde on eta txarrekin, etorkizuneko aukera ikustea izan da. Lehenago esan legez, gure komunitatean bada oraindik hizkuntza, ama-hizkuntza izanik, amaren ardura baino ez dela defendatzen duenik. Aldiz, Euskal Herrian ikusi dugu eskola berreskurapenerako faktore ezinbestekoa izan dela eta horrek asko zabaldu digu ikuspegia.

Eta beste aspektu bat oso garrantzitsua: benetan zentzua du hona etortzeak, ze, ikastaro hau egin zitekeen on-line, edo Mexikon, edo Kolonbian... baina hona etorrita errealitatearekin zuzeneko kontrastea egiteko aukera izan dugu. Herria euskara erabiltzen entzun eta ikusi dugu, ikastolak bisitatu ditugu, euskaltegiak ezagutu... Neurri batean bada hona etortzea esanez ez dagoela modurik hizkuntza berreskuratzeko eta beste aldeak esan diezazula: "Guk egin dugu. Orain zeuok ikusi zer egiten duzuen".

### Gure komunitatearentzako mezurik baduzu?

Gazteei ere esan diet: batek badu aurrez eginiko juzku bat non europarrak europarrak diren, Spainian bizi direnak spainiarak edo Frantzian bizi direnak frantsesak. Harrigarria izan da beste identitate batzuk ezagutzea, kasu honetan euskaldunena. Euskal Herria, bere kultura eta hizkuntzarekin ez da bere baitan soilik balio duen zerbait, Europaren beraren altxor bat ere bada.

---

← Nasa herriko ordezkariak ikastolan.

Kirolak: partiduen ordutegiak (11-04) →

### AKTUALITATEA

---

HH

---

LH

---

DBH

---

# Hemos luchado por la vida y el territorio. Es la hora de la lengua.

noviembre 2, 2017 | [Ikastola, Noticias](#)



**Diego Yatakwe.** Director General CEDICIC (Centro de Educación, Capacitación e Investigación para el Desarrollo Integral de la Comunidad).

Diego Yatakwe es uno de los miembros de la delegación del pueblo Nasa que visitó Kurutziaga el martes 31 de octubre. Dentro del estado de Colombia, los Nasa viven en la parte norte del departamento de Cauca. El proyecto de transmisión y recuperación de la lengua Nasa Yuwe ha traído a Diego, junto con otros representantes de su comunidad, a participar en el curso intensivo de estrategias de Revitalización Lingüística para líderes “Once sueños y uno más” organizado por la asociación [Garabide](#).

Eres director general del CEDICIC. ¿Cuál es su tarea principal?

Llevamos veinte años trabajando una propuesta de educación para el pueblo Nasa. Empezamos

Llevamos veinte años trabajando una propuesta de educación para el pueblo Nasa. Empezamos con la educación, primaria, la secundaria, el bachillerato... Hoy en día estamos trabajando en procesos de educación superior, digamos, universitaria. El enfoque es plantear una educación propia, teniendo en cuenta la cultura y la identidad, basada en lo que se necesita y demanda la comunidad. Me explico, muchas veces pasa que un indígena Nasa, o no-Nasa, estudia en una universidad convencional y llega con un cúmulo de conocimientos a la comunidad pero no sabe qué hacer con ellos, cómo aplicarlos. De ahí la necesidad de la educación superior.

### **Dentro de esta propuesta ¿qué lugar ocupa el idioma (Nasa yuwe)?**

Es una gran ironía. Hablamos de una educación propia, hay una identidad muy fuerte del ser indígena, hay una lógica organizativa... Pero el tema de la lengua ha sido un tema que no se ha tomado con pertinencia. Se supone que Colombia es un país donde impera el bilingüismo, cosa que no es cierta. Es más, hay mucha gente que piensa que las lenguas nuestras solo sirven para la casa, y por lo tanto, las deberían enseñar el papá y la mamá. De modo que a la escuela ha entrado como mucho con 2 o 3 horas de clase a la semana en vez de ser la lengua vehicular.

### **Sin embargo, el 2012 pusistéis en marcha las Wasakkwewe'sx, un proyecto similar al concepto de las ikastolas.**

Los Wasakkwewe'sx son experiencias de inmersión. Allí entran por lo general niños que en sus familias no hablan el *Nasa Yuwe*. Estamos hablando de la comarca de Toribio, de unos 35.000 habitantes. El 49% de la población habla y entiende el *Nasa Yuwe* pero la mayoría no lo entiende ni lo habla. Es por eso que hay que pensar alternativas para plantear el tema de la recuperación de la lengua.

### **¿Ha tenido buena acogida la experiencia de inmersión?**

Sí. Yo creo que es una prueba piloto. Empieza a abrir caminos. Permite pensar cómo la escuela puede transformarse para hacerlo en lengua nasa. Empezamos el 2012 con 6 alumnos y en estos momentos son tres Wasakkwewe'sx con 120 alumnos.

### **En una comarca como la de Toribio donde el 97% de la población se considera indígena.**

Sí pero ten en cuenta que en Colombia llevamos cincuenta años de un conflicto armado que en nuestro territorio es muy fuerte. La nuestra ha sido una tarea de generar conciencia e identidad sobre otra lógica. La principal era la defensa de la vida y del territorio, pero también en términos de organizarnos como conjunto. Eso se logró. Desde ese punto de vista la lengua no fue una prioridad. Y hoy seguramente estamos pensando qué paso damos ahora en la identidad. Y yo diría que estamos a tiempo de darnos cuenta de que, seguramente, el paso a dar es la

prioridad. Y hoy seguramente estamos pensando qué paso damos ahora en la identidad. Y yo diría que estamos a tiempo de darnos cuenta de que, seguramente, el paso a dar es la recuperación de la lengua.

### **Dentro de este marco ¿qué utilidad tiene el curso de Garabide?**

El principal objetivo ha sido, a partir de la experiencia vasca, de lo bueno y lo malo, ver el horizonte posible. Como te dije, en nuestras comunidades aún se debate que la lengua es materna y por lo tanto quien tiene el deber de transmitirla es la mamá, ni siquiera la familia. Y resulta que dentro de la experiencia del País Vasco uno de los elementos fundamentales de la recuperación ha sido la escuela. Entonces, el hecho de conocerla nos ha abierto el horizonte. Y otro aspecto muy importante: tiene mucho sentido venir aquí. Este curso se podría haber relaizado on-line, pudo haber sido en México, en Colombia... Pero tiene sentido venir aquí, porque es contrastar el curso con la realidad. Ver al pueblo euskaldun hablando su lengua, visitar ikastolas, conocer euskaldegis... Confrontar la realidad. Al fin y al cabo, es como venir aquí diciendo que no se puede recuperar la lengua y ver que "*Nosotros lo hemos hecho. Ustedes verán*".

### **¿Algún mensaje para nuestra comunidad?**

Les decía a los jóvenes: uno tiene la idea de que los europeos son europeos, que los que viven en España son españoles, los que viven en Francia franceses. Ha sido sorprendente conocer otras identidades y en este caso la euskaldun. El Pueblo vasco con toda una raíz, cultura, lengua... Un valor inmenso no solo del pueblo vasco sino de Europa misma.

---

# Nasa herriko ordezkariak ikastolan.

azaroa 2, 2017 | [Albisteak, Ikastola](#)



[Garabide](#) elkartearen eskutik etorri dira gurera Nasa herriko lau ordezkari. Kolonbiako Cauca departamenduan bizi da Nasa herria, kontzientzia indigena indartsua duen komunitatea. Hizkuntzaren berreskurapenean ari dira lanean eta horregatik hartu dute parte Garabidek antolatutako “*Hamaika amets eta bat gehiago*” ikastaro trinkoan. Diego Yatakwe CEDICICE-eko zuzendaria orokorra, Saray Vxtnus, Hezkuntza Arduraduna, Leidy Pavi, Toribioko alkatea eta Adolfo Vxtnus, Wasakkwewe'sx-etako (murgiltze eskolak) koordinatzailea izan genituen gurekin, Andoni Barreñarekin batera.



Kurutziaga ikastolan proiektua ezagutarazi eta trukean beraiena ezagutzeko aukera izan genuen. Une hunkigarriak ere bizi izan ziren Ikastolaren sorrera eta orduko bizipenak gogoratzean. DBH 4ko ikasleek arretaz jarraitu zituzten azalpenok.



Ikusentzuneko ikasleek bideo eta argazkitan dokumentatu zuten Nasatarren bisita eta berandu barik [euren blogean](#) jasoko dute bisita horrek emandakoaren berri.

# VISITA representantes del pueblo Nasa

noviembre 2, 2017 | [Ikastola, Noticias](#)



Cuatro representantes del pueblo Nasa visitaron Kurutziaga el martes pasado de la mano de la asociación [Garabide](#). El pueblo Nasa vive en Colombia, en el norte del departamento de Cauca. Entre otras cosas están trabajando en la recuperación de la lengua propia, el *Nasa Yuwe*, y han participado en el curso intensivo “Once sueños y uno más” organizado por la asociación Garabide. Tuvimos el honor de contar con Diego Yatakwe Director general CEDICIC, Saray Vxtnus responsable de Educación, Leidy Pavi, alcalde de Toribio y Adolfo Vxtnus coordinador de las Wasakkwewe’sx (escuelas de inmersión lingüística) junto con Andoni barreña (Garabide).





Por nuestra parte compartimos la experiencia y el proyecto de Kurutziaga Ikastola mientras ellas nos dieron a conocer sus propuestas para la recuperación de la lengua y sus proyectos educativos. Se dieron momentos emocionantes al recordar los inicios del proyecto de la Ikastola, las dificultades y la implicación que conllevaba sacar adelante semejante proyecto. El alumnado de 4º de DBH siguió con atención los testimonios de unas y otras.



El alumnado de la asignatura de audiovisual documentó la visita e hizo entrevistas a los invitados. Esperamos que en breve podremos ver su trabajo en [su blog](#).



943 77 20 25

ARIZMENDI IKASTOLA BERRIAK  
IKASTOLAKO PARTAIDEAK "HBE" ADITU TITULUKO IKASLEEN AGUR  
EKITALDIAN



## IKASTOLAKO PARTAIDEAK "HBE" ADITU TITULUKO IKASLEEN AGUR EKITALDIAN

2017/11/06



Garabidek eta Huhezik elkarlanean antolatu ohi duten *Hizkuntza Biziberritzeko Estrategiak* aditu tituluko ikasleak izan dira oraintsu gurean. Batxilergoko ikasleekin solasean aritu ziren baina Almenen, baita Gazteldupen ere. Euren herrialdeetako jatorrizko hizkuntza eta kultura gutxituen berri eman zieten, eta gure errealitatearekin duten harremanaz mintzatu ziren. Horrekin batera, egubakoitzean gure ikastolako hainbat ordezkari Galartzako dorretxearen izan ziren diploma banaketa ekitaldian eta agur ospakizunean. [Argazkiak](#).

# Baraingo alkateak "Hamaika amets eta beste bat gehiago" agur ekitaldian parte hartu zuen

2017-11-06

Garabide elkartea antolatutako ikastaldi trinkoa urriaren 30ean amaitu zen Aretxabaletako Galartzar dorretxearen burututako ekitaldi batekin. Hizkuntza gutxituetako 12 agintariei zuzendutako formazio programa honek barne hartzen ditu 140 klase ordu eta hizkuntza gutxituen elkartrukean oinarritzen da.

Baraingo udala gonbidatua izan zen agur ekitaldi honetara programari emandako babesagatik, Oihaneder Indakoetxea alkatea bertan egon zen diploma banaketan parte hartuz.

Sarrerako hitzak entzun ondoren ametsen mosaikoa eraiki zuten euskalgintzako eragileek eta hizkuntza gutxituetako 12 agintariek.



Garabide


[Menua](#)

EU ES EN



# *Egin dezagun mapuzugunez maputxeak izateko*

[HASIERA](#) [BLOGA](#) EGIN DEZAGUN MAPUZUGUNEZ MAPUTXEAK IZATEKO



Plazer handia da, beti, hizkuntzarik bizirik mantentzen ahalegintzen den jendea gurean hartzea, eta horrela sentitu dugu Paula Huenumilla Herrera maputxea gure artean edukitzeko aukera. Ikus dezagun, jarraian, nor den Paula eta zeintzuk diren bere helburuak eta ardurak.

- *Ea, Paula, hasteko, nor da Paula?*

Ba, Paula, nire lehenengo abizenean ikusi duzuen moduan, jatorri maputxea duen neska bat da. Beti bizi izan naiz Araucon (Txile);

izan ere, aitaren familia Wallmapetik atera zuten bera txikia zela.

Horren ondorioz, duela urte asko galdu genituen erroak, eta berreskuratzeko premia da, gaur egun, niri bizitzaren motorra.

- *Nondik dator aipatutako premia?*

Lehenengo eta behin, esan nahi dut beti egon naizela harro nire abizenaz; bestela esanda, inoiz ez dut ezkutatu izan. Hala ere, kultura maputxearekin lehenengo hartu-eman erreala, nire kulturan erabat murgildu ninduena, 2015eko otsailean izan zen; data handia niretzat. Izena eman nuen oinarrizko mapuzuguna ikasteko barnetegi batean, eta 21 egun haien erabateko bizimodu aldaketa ekarri zidaten. Hausnarrarazi egin zidaten, baita hainbat gauzez ohartarazi ere; eta, beharbada garrantzitsuena: egoera berean zegoen eta sentimendu berberak zituen jendearekin partekatu ahal izan nuen.

- *Zertaz ohartu zinen, ba?*

Gauza asko eta askotaz, baina interesgarria iruditzen zait azpimarratzea konturatu nintzela hizkuntza ezinbesteko osagaia dela maputxeontzat; mapuzugun da elementu nagusia kultura ulertzeko eta kulturan barneratzeko. Horregatik izan nuen argi, hasieratik, ikasi nahi eta behar nuela. Era berean, norberak bezala pentsatzen duen jendeaz inguratzearen garrantziaz ere izan nintzen kontziente. 21 egun haietan, beste mundu bat ezagutzeko abagunea izan nuen, eta barneko zutabeak astindu zizkidan horrek; baten bat bota arte astindu.

- *Zer esan nahi duzu azken horrekin?*

Adibidez, nire lagunak: konturatu nintzen ez genuela zer ikusirik. Barnetegiko jendearekin partekatzen nituenak ezin izango nituen inoiz komentatu nire lagunekin, maputxeak ez izateaz gain, ez baitzuten uste harro egoteko kontua zenik. Erabateko etsipena izan zen, halaber, “gure historia”; hobeto ulertuko duzue unibertsitatean historia ikasi nuela badiot. Zeharo ezberdin kontatu zidaten eta, jakina, askoz ere konformeago nago orain deskubritzen ari naizenarekin.

- *Argi dago, Paula, zure bizitzan aldaketak egon direla; gogorra izan da?*

Zelan esango nuke: gogoko tokian aldaparik ez! Uste dut prozesu gogorra dela; batzuetan, une onak eta, beste batzuetan, ez hain onak. Egia da oso momentu onean nagoela oraintxe bertan: motibatuta! Ilusioz beteta! Itxaropentsu! Baino tarte txarrik ere izan dut; gehienak, identitate-bilaketak eragindakoak. Batzuetan, abizen maputxea izateak ondorio txarrak izaten ditu: alde batetik, Txilekoek indioak deitzen digute; eta beste aldetik, maputxeek, champurrianoak (mestizoak) eta wuariacheak (hirian bizi garelako eta terrenorik ez dugulako). Imajinatuko duzuenez, ez da batere atsegina identitate batekiko horrelako errespetu falta jasatea. Nik, ordea, txalotzen gaituztenak hartzen ditut aintzat.

- *Zein da zure papera berreskuratze lan honetan?*

Ni, gehien bat, hizkuntzan zentratu naiz, eta Mapuzuguletuaiñ elkarreka eman dit horretarako bidea. Elkartearen komunitate linguistikoa berregituratzeko zein hiztunak zein hizkuntzarako baliabideak sortzeko egiten dugu lan. Nik neuk ere jarraitzen dut nire ikaste prozesuan; are gehiago, praktikatu ahal izateko, zonalde maputxera joan naiz bizitzera, eta orain etxetik 7 ordura bizi naiz. Bitartean, mapuzugun irakaslea ere banaiz. Ikastaroak direla, barnetegiak direla, baditut ikasle batzuk; eta aitortu behar dut nire ahaleginaren uzta direla. Bestalde, maila pertsonalean, benetan nahiko nuke nire seme-alabek mapuzugun izatea ama hizkuntza; baita euren seme-alabek izatea ere. Hori dela-eta, hauxe da nire teoria: nire nahiak bete daitezen, bai ala bai handitu behar dugu hiztun-komunitatea hurrengo belaunaldikoek bikotekide mapuzugundunak topatu ahal izateko. Horrek emango lioke zentzua nire erronkari.

- *Esan behar dizugu, Paula, itzela dela horrelakoak entzutea. Oilo-ipurdia ere jarri diguzu! Asko maite dugu hizkuntzak maite dituen jendea, eta indarrez borrokan jarraitzen animatu nahi zaitugu. Bukatu orduko, baina, berba batzuk eskatu nahi dizkizugu mapuzugunez.*

“Mapuzugukenaiñ taiñ mapuchägeal” (Egin dezagun mapuzugunez maputxeak izateko)

- *Ba horretan antzekoak gara, geu ere euskarak egiten gaitu euskaldun-eta. Mila esker eta nahi duzunera arte!*